



AZPEITIKO MUNDUAK

BATXILERGORAKO UNITATE DIDAKTIKOA

SARRERA

Literatura sortzea munduak sortzea dela esan ohi da. Definizio posibleetako hori ontzat emanda zilegi bekigu esatea Azpeitiko idazleek sortu dituzten eta sortzen jarraituko dituzten munduak Azpeitiko Munduak direla.

Hori horrela izaki, Azpeitiak Euskal Herriko beste herri askok eskain ez dezaketena eskaintzen du. Gure literaturgintzan leku jakin batek, kasu honetan Loiola inguruak, eta ez huts-hutsik Larramendiren bidez, euskal hizkuntzaren eta literaturaren munduan izan duen garrantzia bertatik bertara lantzeko aukera ematen du. Iraurgi bailara honetan, esku eskura daukagu XVIII. mendean geroztik hemen bertan mamitu diren ideiek euskal literaturan izan duten balioa, lekua eta eragina, kasu batzuetan estrategikoa aztertzeko aukera. Ezagutza horiek nola transmititu, horra gakoa.

Hezkuntzaren munduan hizkuntzaren irakaskuntzaz hitz egiten dugu, edota literaturaren irakaskuntzaz. Haatik, eta zenbait kasutan, **literaturaren transmisioaz** eta **hizkuntzaren hobekuntzaz** hitz egin genezake. Eta aukeran horixe praktikatu. Eta, gaude, literatura eta hizkuntza non-eta etxean bertan, kalean edota ikastetxeetan, elkarren aldamenean bizi diren herrietan ahal dela praktika hori gauzatu. Horiexetakoa dugu Azpeitiko udalerria.

Bada, Unitate Didaktiko honek, hizkuntzaren hobekuntza erabat baztertu gabe, **literaturaren transmisioa du helburu**, eta zehatz esateko literatura garaikidearen transmisioa, alegia XX. mendearen bigarren erditik hona garatzen ari den hitzen bidezko edergintza.



Halaxe, <http://www.amarauna.org/azpeitia/> webgunean begiratuta, hemezortzi idazle topatu ditugu. Idazleon bidez **literatur genero gehienei**, guztiei ez esategatik, kuku batzuk egiteko aukera dugu. Saiakera eta narraziogintza, poesigintza eta bertsolaritza, haur-literatura eta nobela beltza, kazetaritza eta dibulgazioa, hemezortzi literaturgile horien bidez horiek guzti-guztiak ezagutzeko parada dukegu.

BALIABIDE BERRIAK

Teknologi baliabideen ez dakigu zenbatgarren iraultza bizi dugun. Edozein datutara iristeko tresnak eskura ditugu, umek berek ere erabilgarri. Horren harira aspaldion memoriari buruz hitz egiten da, **gogoratzeko gaitasuna ez ote dugun galduko**. Zalantza horri guk buelta eman nahi diogu.

Memoria erraldoia dugu Sare Globalean, alegia, Interneten. Zertarako, bada, norberaren memoria? Memoria global hori zelan erabili, eta zertarako erabili, horixe gogoratzeko. Beste memoria bat behar dugu, teknologien kontu horrek ez du-eta atzera-bueltarik. **Memoria praktikoa** iritzi diogun memoria behar dugu.

Egun, idazleen testuak ez ezik, horien ahotsak, argazkiak, iritziak, datu-baseak eta abar eskuragarri ditugu. Gakoa da horietara zelan iritsi. Eta zertarako. Galderoi erantzuteko tenorean **motibazioara jo behar dugu**. Egungo ikasleek literaturara era proaktiboan jotzeko, zein motibazio izan dezakete? Gure ustez, Azpeitiko kasuaren legezkoetan, motibazio nagusiak hurbiltasuna eta bizitasuna behar dute izan. Esan, "Gazteok, goazen horko kaleko idazle horrek –Alaitz Olaizolak- zer idatzi duen ezagutzera, gure herria ezagutzea da eta!".

Baliabide berriei esker Xabi Bordaren ahotsa adi dezakegu, bere olerkiak esaten. Papereko Xabi Bordaren ordeztu mp4ko Xabi Borda. Baliabide berriei esker Txuma Murugarren entzun genezake Xabi Bordaren olerki baten kantari. Beraz, paperekoen ordeztu eta, euskarri horri ezer ukatu gaberik, **arnasa duten**



idazleak. Eta aurpegia, eta keinua, eta jarrera, eta janzkera, eta orrazkera eta zera guztiak dituzten idazleak ere, bideoen bidez.

Baliabide berriek, nahi zein nahiz ez, Memoria praktikoa lantzerantz behartzen gaituzte eta, teknologia berrien erabilerak, horretarako ez ezik, motibazio berriak sortzeko balio lezake. Ziurrenik, edozein ikaslek nahiago du Sarean bilaketak eginez ikasi paperezko liburuak haztatuz baino. Paperezkoa, literaturarako grina sor dakiokenari, geroago etorriko zaio. Zalantzarik gabe.

LUDIKOTASUN ERA BERRIAK

Teknologia berriek beste ludikotasun-era batzuk ekarri dizkigute.

Lanerako tresnak diren hein berean baitira jolaserakoak. Norberaren baitara bildurik bakarka erabiltzekoak diren era bertsean baitira besteekin harremanetan sartzeko eta harremanoi eusteko tresnak.

Bada, idazleok inoiz ezer defenditu izan badugu, **literaturaren ludikotasuna** izan da. Ludikotasuna, imaginarioetan murgiltzea eta atsegin-iturri den aldetik gehien bat. Hots, literaturaren funtzio soziala ukatu gabe.

Teknologia berrien erabilerak areagotu egin lezake literaturak berez baduen, edo izatea nahiko genukeen, ludikotasun hori.

ZEHAR LERROA

Irakaskuntzaren unibertsoan, aspaldion, Zehar-Lerroa kontzeptua landu eta gauzatu da, poliki-poliki bada ere. Bada, Azpeitiko idazleen kopurua, gaien aniztasuna eta generoen lanketa, proposatzen dugun Ikas-Unitatea -Azpeitiko Munduak- zehar-lerrotzat ere planteatzen dugu. Narrazioari mugatuz, hona abibide zenbait:

Nobelagilea da Pako Aristi, lan askotan sorterriko historiari emana. Horra bada Pako Aristiren munduaren bidez herriaren Historia Soziala lantzeko aukera.

Nobelagilea da Aitor Arana, narrazio askotan gay jendeen barne-

sentimenduei emana. Horra bada sexu-aukeren mundua Aitor Aranaren munduaren bidez lantzeko aukera.

Beraz, Ikas-Unitate honen edukiek eta balizko erabilerek zentraltasunerako bokazioa erakusten dute, izatez gu garen literaturzaleok literaturaren balioak gehiesten ez baditugu bederen.



Azpeitiko Idazleak (1)

Literatur belaunaldiak

1.- Hona hemen Azpeitiko idazleen estekak. Alfabetoaren arabera ordenaturik ageri dira. Sar zaitetz bakoitzean eta ordena itzazu idazleen adinaren arabera, zaharrenarekin hasi eta gazteenarekin buka:

[Joxean Agirre](#)

[Mikel Alberdi](#)

[Xabier Aldai](#)

[Gurutz Ansola](#)

[Aitor Arana](#)

[Pako Aristi](#)

[Xabi Borda](#)

[Imanol Elias](#)

[Miel Anjel Elustondo](#)

[Anastasio Esnaola](#)

[Joxemari Iriondo](#)

[Iban Izagirre](#)

[Imanol Lazkano](#)

[Fernando Morillo](#)

[Alaitz Olaizola](#)

[Benantxio Otaegi](#)

[Jose Luis Otamendi](#)

[Iñaki Segurola](#)



Gurutz Ansola 1924
Anastasio Esnaola 1933
Imanol Elias 1936
Imanol Lazkano 1936
Joxemari Iriondo 1938
Benantxio Otaegi 1943
Joxean Agirre 1949
Miel Anjel Elustondo 1958
Jose Luis Otamendi 1959
Mikel Alberdi 1960
Iñaki Seguro 1962
Aitor Arana 1963
Pako Aristi 1963
Fernando Morillo 1974
Alaitz Olaizola 1975
Xabier Aldai 1975
Xabi Borda 1981
Iban Izagirre 1985

2.- Idazleak jaioturtearen arabera sailkatu ondoren *belaunaldietan* bil edo multzoka daitezke. Lehenik, ordea, belaunaldi kontzeptua zertan den argitzea komeni da. Ez da erraza zehazten kontzeptu hori, mundu zabalean eta tokian tokiko literaturaren historietan erabili ohi bada ere. Hitzaren esanahia ezagutzeko:

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=aldi&lang=eu



3.- Belaunaldien horri buruzko gurean izan diren eztabaidetako batzuen berri jakiteko egizu klik hurrengo esteketan:

<http://www.argia.com/argia-astekaria/1968/mahai-ingurua-literatur-belaunaldien-arteko-harremanaz-harkaitz-cano-juan-luis-zabala-eta-iban-zalduarekin/inprimatu>

<http://www.euskonews.com/0330zkb/irratia.html>

4.- Belaunaldiak, etiketak ote dira? Belaunaldi kontzeptua etiketatzat erabili omen daiteke. Onartzen dituzte idazleek etiketak?:

<http://www.argia.com/irati-jimenez>

5.- Euskal literaturak eman duen azken belaunaldiaz begira zer dioen Beñat Sarasolak (Donostia, 1984):

<http://www.basquepoetry.net/?i=poemak&b=1215>

6.- Idazle horri buruzko atalean ageri den testuak eta Beñat Sarasolaren atalean ageri denak badute elkarrekin zerikusirik? Elkarren antzik? Zertan?

7.- Beñat Sarasolaren olerkiak AEBetako XX. Mendeko poeta handienetako baten beste olerki bat dakar gogora. Zein?

<http://www.armiarma.com/emailuak/mizka/ginsberg.htm>

8.- Alderatu itzazu Sarasolaren olerkia eta Ginsbergenen olerkiaren lehen ahapaldiak.

9.- Zer dakizu Allen Ginsbergi buruz? Begiratu hemen:

http://en.wikipedia.org/wiki/Allen_Ginsberg

10.- Azpeitiko zein idazle sar genezake Beñat Sarasolaren belaunaldi berean?

Iban Izagirre.

Azpeitiko Idazleak (2)

Literatur generoak

1.0.- Azpeitiko idazleen zerrendan hemezortzi izen jarri ditugu. Gai zara horien lanak literatura-generoen arabera sailkatzeko? Hona hemen [genero hitzak literatura terminoen hiztegian dituen adieretako bat, jarraibidetzat erabil dezazun:](#)

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474&search=genero

2.1.- Horiek horrela, eta teoria berrien azpitik eta zaharren gaineratik, gurean ohikoena den sailkapena hurrengoa da:

Antzertia:

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=antzerti&lang=eu#55

2.2.-.- Azpeitiko zein idazle nabarmendu dezakegu antzerkiaren arloan?

Alaitz Olaizola

Imanol Elias

3.1.- Poesia (olerkigintza / lirika):

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=poesia&lang=eu#548

Lirika:

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=lirika&lang=eu

3.2.- Azpeitiko zein idazle nabarmendu dezakegu lirika edo poesiaren arloan?

Jaioturtearen arabera:

Jose Luis Otamendi

Pako Aristi

Mikel Alberdi

Xabier Aldai

Xabi Borda

Iban Izagirre

4.0.- Narraziogintza

Prosazko fikzioaren baliokidetzat hartu dugu hemen narraziogintza termino zabala. Besteak beste Patri Urkizuk, Iñaki Aldekoak eta Xabier Mendigurenek erabili izan dutena. Izan ere badira-eta prosazko beste genero zein azpigenero batzuk, narrazioaren arlokoak izan gabe ere literaturatzat jo litezkeenak. Hala nola, Saiakera eta Kazetaritza.

Azpeitiko idazleen zerrendakoen artean, narratzaileak ere badira tartean. Zein?

Liburu bat baino gehiagorekin:

Joxean Agirre

Pako Aristi

Aitor Arana

Fernando Morillo



Liburu bakarrarekin:

Imanol Elias

Xabier Aldai

Jose Luis Otamendi

5.- Bertsolaritza

5.1.- Euskal Literaturaren historietako batzuetan bertsolaritzak badu bere lekua, Ahozko Literatura delako atalean. Bada, jakingo zenuke Ahozko Literatura delako horren definizioen bat sortzen?

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=ahozko%20literatura&lang=eu

5.2.- Euskaltzaindiaren definizioaren barruan bat-batekotasunaz hitz egiten da. Horixe da bertsolaritzaren ezaugarri nagusia?

5.3.- Begiratu bertsolaritzaren beste definizio batzuk, bertsolariek eta bertsoadituek emanak:

<http://www.bertsozale.com/eu/bertsolaritza/sarrera-zer-da-bertsoa>

5.4.-Denbora luzez bertsolaritza fenomeno bakantzat jo izan da. Gerora ostera ahozko literatura mota horren antzekoak munduan beste leku askotan ere badirela jakin dugu. Kuban, adibidez, Repentista esaten zaio bertsoak hitzetik hortzera kantatzen dituenari. Nola euskaratuko zenuke repentista hitza?



5.5.- Badakizu munduan beste non kantatzen den gure bertsolaritzan bezalaxe?

5.6.- Bertsoak, hainbatetan, historiaren testigantza eta historiarako iturri izan dira. Baita literatur sorkuntzarako abiaburu ere. Hala nola Pako Aristiren eleberrietako batean. Zeinetan?

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=AriP06>

Zein dira Pako Aristiri nobelarako gaia eman zioten bertsoak?

5.7.- Bestalde, bertsolaritzari eskainitako bilduma oso bat zuzendu eta bideratu zuen. Nork? Zein bilduma?

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&Itemid=601&layout=auspoa_galeria&view=frontpage&lang=eu

5.8.- Azpeitiko idazleen artean bada XX. mendeko azken aldean eta XXI. honen hastapenetan nabarmendu den bertsolaririk?

Imanol Lazkano

<http://bdb.bertsozale.com/web/haitzondo/view/-Imanol-Lazkano>

http://uztarria.com/azpeitia/herri_aldizkaria/2004/47/03lazkano/index_html

5.9.- Bertsolaritzaren historian barrena halako batean gai-jartzailea delakoaren figura sortu, garatu eta sendotu zen. Bada gai-jartzaile ezagunik Azpeitiko idazleen artean?

Jose Mari Iriondo



6.- Kazetaritza

6.1.- Hona hemen *Literatura Terminoen Hiztegiak* kazetaritzaz esaten dituenen zatia edo txatala:

“Langintza edo ogibide hori beraz literaturgintza edo literatur idazletzatik bereizten da, baina kazetaritzaren eta literaturaren artean harreman handiak daude. Idazle askok kazetetan idatzi izan dute hizkuntza handietan, bereziki XIX. eta XX. mendean. Euskal idazle askok ere kazeta eta kultur aldizkarietan agerrarazi eta agerrarazten dituzte beraien literatura lanak (...)”

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=Ith_detail&Itemid=474&search=kazetaritza&lang=e

Kronika

Jakingo zenuke esaten Azpeitiko zein idazlek egin duten kazetaritzaren arloko libururen bat?

Pako Aristi

Miel Anjel Elustondo

Xabi Borda

6.2.- Arestian aipatu dugun hiztegian beste hau ere irakur daiteke: “Kazeta estiloaz mintzatzean, genero batzuei dagokien estiloaz mintza daiteke (adibidez, erreportaje estiloa edo kronika estiloaz), baina bereziki albistearrekiko jokabide edo hainbat xederen araberako (informazioa, interpretazioa, iritzia) kazeta estiloez mintzatu ohi da.”



6.3.- Azpeitiko zein idazlek landu du erreportajea bere libururen batean edo bestean? Zeinetan?

Pako Aristi

Xabi Borda

Miel Anjel Elustondo

6.4.- Aspaldi honetan kazetetan, hots, egunkari, astekari eta noizbenkarietan, *zutabeak* idatzi ohi dira. Bada Azpeitiko idazleen artean arlo horretan nabarmendu dena. Zein?

6.5.- Idazle horrek zutabeen bilduma-liburuak argitartu ditu. Zein liburu?

Bezperan entregatu nituenak

Udan lan egiten zuen gizona

Hona Pako Aristiren zutabe horietako bat:

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=AriP19>

7.- Saiakera

7.1.- Zeri deritzogu saiakera?

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=saiakera&lang=eu

7.2.- Saiakera hitzaren sinonimorik?

Entsegua

7.2.- Saiakera edo entsegua landu duten Azpeitiako idazleak zein dira?

Gurutz Ansola

Aitor Arana

Pako Aristi

Fernando Morillo

Benantxio Otaegi

Iñaki Segurola

8.- Biografia

8.1.- Hona hemen Literatura Terminoen Hiztegiak biografia hitza diotenaren zati edo txatala:

“Pertsonaia erreal ala fikziozkoaren bizitzaren berri jasotzen duen narrazioa. Bizitza horren gorabehera esanguratsuenak edo bitxiak kontatzen dira, eta hirugarren batek kontatzen ditu (anabiografia), lekukotza eginez nahiz dokumentazioan eta besteren testigantzan oinarrituz.”

8.2.- Zein dira biografia landu duten Azpeitiko idazleak? Jaioturtearen arabera:

Joxemari Iriondo

Joxean Agirre

Aitor Arana

Pako Aristi

Fernando Morillo



Azpeitiko idazleak (3)

Identitate generoa

1.- Bestalde, genero hitzak badu beste adiera bat ere, gutxienez jota. Hona:

http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/libros_gratuitos_en_pdf/Humanidades/Gorputza%20eta%20generoa.pdfwww1.euskadi.net/harluxet/

2.- Definizio horretako lehenengo sarreraren arabera, gizakion artean zenbat genero leudeke?

[Emakumea baldin bada generoetako bat, hona hemen horri buruzko hausnarketa luze-sakona](#)

http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/libros_gratuitos_en_pdf/Humanidades/Gorputza%20eta%20generoa.pdf

3.- Eman dezagun generoak bi baino gehiago direla eta goazen horren frogaren bat edo besteren bila Azpeitiko Idazleen zerrenda horretan arakatzuz:

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=AraA28>

4.- Generoen harira beste kontzepturik ere sortu da. Halan nola, [queer teoriak](#):

http://eu.wikipedia.org/wiki/Queer_teoriak

[Horri buruzko hausnarketa, Kattalin Minerrek egina:](#)

<http://www.gaur8.info/edukiak/20131019/428190/Hara-zernahi-bat>

[Eta erantzun antzeko hau:](#)

<http://abiertasdementes.blogspot.com.es/2008/05/queer-teorien-inguruan->

[euskaraz-gogoeta.html](#)

5.- Azpeitiko idazleen zerrendan emakumezko bakarra ageri zaigu. Nor?

Alaitz Olaizola:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=688>

6.- Emakumezko euskal literaturan duten presentziaz eta *statutsaz*:

<http://elearazi.org/2014/03/20/literatura-eta-harrikoa/>

Joxean Agirre

1.- Nor da Joxean Agirre?

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=145>

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?i=AgiJ>

http://eu.wikipedia.org/wiki/Joxean_Agirre

2.- Joxean Agirreren eleberrietako bat *Zwei Frauen* (Bi ahizpa) da. Zein hizkuntza da hori?

3.- Titulu horrek omen egiten dio Joxean Agirreren idazle kuttunenetako bati. Zeini? Sar zaitetz Azpeitaiko Idazleen *Idazleak lekuan* eta bila ezazu erantzuna.

4.- Joxean Agirreren eleberrietako baten titulua *Elgeta* da. Nor zen Elgeta? Hona hemen haren argazkia, biografia eta diskografia:

http://www.euskaraz.net/Biltegia/ELGETA%20_1906_1964.pdf

5.- Joxean Agirreren iritziak, bere ahotan:

<http://www.bizkaiairratia.com/audio/ikusi/Joxean+Agirre+Irakurrieran+saioan/31>

[34](#)

Mikel Alberdi

1.- Nor da Mikel Alberdi?

<http://static.deia.com/docs/2012/03/16/ortzadar160312.pdf>

2.- Mikel Alberdik bere liburua argitaratzekoan autoediziora jo zuen. Zer da autoedizioa?

<http://eibz.educacion.navarra.es/blogak/liburutegia/2013/09/iragazki-eta-epairik-gabe/#more-4476>

3.- Idazleak, zein motibo izan dezake autoediziora jotzeko:

Lanaren kontrol osoa?

Zentsuratua ez izatea?

Ohiko argitaletxeen ukoa?

Irabazi asmoa?

Besterik?

4.- Zein da Mikel Alberdik autoediziora jotzeko izan duen motibo nagusia?

http://uztarria.com/herri_aldizkaria/2011/134/02/index_html

5.0.- Mikel Alberdik autoediziora jotzeko motiboan aipatzean editoreaz hitz egin du. Zein da Editorearen lana?

5.1.-Hona hemen editore zenbaiten iritziak:

Jorge Gimenez:

<http://boga.hitza.info/2011/12/02/jorge-gimenez-editorearen-lana-ederra-dabaina-gutxi-du-lasaitik/>



Pello Elzaburu:

http://paperekoa.berria.info/kultura/2006-04-14/032/945/lege_info.htm

Xabier Mendiguren

<http://elearazi.org/2012/12/03/editoreak-mintzo-mikel-soto-eta-xabier-mendiguren/>

Mikel Soto:

<http://elearazi.org/2012/12/03/editoreak-mintzo-mikel-soto-eta-xabier-mendiguren/>

Antxiñe Mendizabal:

http://www.aizunet.org/index.php?option=com_content&view=article&id=598:ez-dagokigu-guri-zentsore-lana-egitea

5.2.- Nor da Zentsorea? Zer da zentsura?

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Zentsura>

5.3.- Editoreek esandakoa laburtzeko gai ote zara?

5.4.- Idazleak maiz mintzo dira editorearen zereginaz. Zertan da ezberdina idazlearen iritzia editoreen iritziekiko? Hona adibidea:

<http://www.bazka.info/?p=358>

6.0.- Hona hemen Mikel Alberdiren olerkietako bat:

ERLIJIOEN ARKITEKTURAK



izateari zentzua bilatzen
darraiten erlijioen
eraikuntza izugarriak
ditut hizpide
arkitektura anitzek
gogoratzen didate asmo sakon hori
Egiptotik Mexikora
Kanbodiatik Parisera
zenbat esklabu hil dira, hil
eraikuntza erraldoi horiek sortzeko...!

arimaz hustutako gorputz zargalduekin
gogoratu nintzen Samarkandara iristean
minarete eta kupula ezinezko
turkesa xarmangarriz estalita
geometria orbangabe eta sorgindua
eternitateak forma har dezan
arimen oinazearen gainean
eraikitako edertasuna...!

zenbateraino nahiagoko nukkeen
jendea ikustea
Gobiko basamortuan jauzika,
dantza deszifra ezinak eginez
inoiz harrizko arkitektura bihurtuko ez diren
keinuekin.



6.1.- Olerkiak beste olerkari, antzerkigile eta saiogile alemaniar baten lana dakar gogora, hain zuzen ere pasarte honetan:

zenbat esklabu hil dira, hil
eraikuntza erraldoi horiek sortzeko...!

6.2.- Horren olerki batzuk euskarara ekarriak eta euskaraz kantatuak izan dira.
Nori buruz ari gara?

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=101>

6.3.- Nork kantatu ditu euskaraz Bertolt Brechen olerkiak? Hona hemen Mikel Alberdik zeharka aipatu duen olerkia, nor ere den horrek kantatua:

<https://www.youtube.com/watch?v=VhF1K7ZIoSk>

6.4.- Olerkiaren bertsio honetan musikaria ere baden beste idazle batek kantatzen du. Nork?

<https://www.youtube.com/watch?v=VhF1K7ZIoSk&list=RDVhF1K7ZIoSk#t=80>

Hona erantzuna:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=133>

6.5.- Bideoan ikusi dituzun irudiak, bat datoz, zure iritziz, Bertolt Brechen hitzekin?

6.6.- Erantzunak olerkiaren sakona hobeki ulertzen lagunduko dizulakoan, hona galdera: Zer dakizu olerkian aipaturik den Samarkanda izeneko lekuaz?

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Samarcande>

6.7.- Gai ote zara olerkian aipaturik ageri diren lekuak eta herrialdeak Azpeitiko Idazleen Munduko Mapan egokiro kokatzeko?

Xabier Aldai

1.- Nor da Xabier Aldai?

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=42>.

2.- Irakur ezazu Xabier Aldairen hurrengo olerkia:

Hau da azpeitia diot eta
ez naiz lotsatzen
ostikoz jotzen dut haizea
ezpain artean ditut gordetzen
aintzinako zizareen etsipenak
hontzen ulu eta habiak
eta ez naiz isiltzen ez
ez naiz isiltzen
ez bada ozenki mintzatuz

hau da azpeitia diot
kuriositateaz begiratzen ditut
zubiz lepa-estuturiko ibai herdoilduak
betzulo beltzen galdera ikur keinu
eszeptikoak etxe zahar etxe berriak
rutinaren ke zutabe beltzak zeru zaharrak zeharkatzen
aiton-amonak helduak gora eta behera
kez lohituriko oroitzapenak narraztatzen

hau da azpeitia diot



bere mamuei begira hau da ene askatasuna
huntzez eta belez bete
gaztelu abandonatua hemen epaitzen dira
kolore guztietako gizakiak irudimenaren
zerrautsezko hilkutxetan hilobiratuz
hemen bizi dira
hemen hil ziren
azpeitian

hau da azpeitia diot
tabernek jan dituzte herri honetako
gazte uniformatuen arima jolas agnostikoak
hauek dira azpeitia taberna azkoitia
taberna euskadi taberna
mundu osoa azpeitia taberna da!
hau da azpeitia bai
hau da azpeitia diot
hemen ama da semearen heriotza jakiten azkena
hau da azpeitia diot
tabernatik irtenez

3.- Xabier Aldairen olerkiko lehenengo lerroak beste poeta baten olerki jakin baten lehenengo lerroa dakar gogora. Zein?

<http://www.argia.com/blogak/ignazio-aiestaran/2014/02/26/gabriel-arestiren-ijitoak/>

4.- Beharbada olerki honen zantzuak edo honekiko antzekotasunak Azpeitiko beste olerkari gazteago batengan antzeman daitezke. Norengan?



Iban Izagirre

5.- Literaturaren historietan ezagunak dira idazle-taldeak. Baita euskal literaturan ere. Xabier Aldai Lubaki Banda izeneko sortzaile eta partaide izan zen. Zer dakizu Lubaki Bandaz?

<http://andima.armiarma.com/susa/susa2820.htm>

6.- Horrelako taldeak agerkari, aldizkari, argitaletxe, tertulia edo beste zernahiren inguruan bildu ohi dira. Lubaki Bandaz gain, aipa dezakezu horrelako beste talderik, edo bilgunerik?

Ustela

<http://andima.armiarma.com/>

Oh! Euzkadi

<http://andima.armiarma.com/>

Pott Banda

<http://andima.armiarma.com/>

Susa

<https://www.gaztezulo.com/artikuluak/susa-mende-laurdena-literaturari>

Maiatz

<http://andima.armiarma.com/>

Korrok!



<http://andima.armiarma.com/>

Kandela

<http://andima.armiarma.com/>

7.- Azpeitia, Azkoitia, Euzkadi, "tarbernak" dira Aldairen ustez. Zer diozu zuk?
Beste definizioen bat?

Gurutz Ansola

1.- Nor da Gurutz Ansola?

Labur:

<http://www.idazleak.org/euskara/idazleak/gurutz-ansola-larranaga?h=A&p=3>

Luzeago:

http://uztarria.com/herri_aldizkaria/2005/64/05/index_html

2.- Hona Gurutz Ansolaren saiakera-atal bat, Ongi-Izate Estatuaren krisiaz:

<http://www.idazleak.org/euskara/idazleak/gurutz-ansola-larranaga/laginak/ongizate-estatuaren-krisialdia-eta-etorkizuna?h=A&p=3>

3.- Gurutz Ansolak 1971ko testu horretan idatzi zituen gai, iritzi edota ideietatik bada gaur egun indarrean dagoenik?

Aitor Arana

1.- Nor da Aitor Arana?

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=9>

2.- Aitor Aranaren bibliografia oparoa da. Literaturako genero eta azpigenero gehienak landu ditu. Baita hiztezigintza ere:

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=AraA28>

3.- Aitor Aranak arreta handia eskaini dio Oscar Wilderen lanari. Zergatik? (Begiratu Azpeitiako Idazleen Munduan atalean Wilderen biografia dakarren esteka.)

4.- Hala bada, gure literaturan eta salbuespenak salbuespen tabua izan den gaia jorratu du Aranak. Zeri deritzogu edo esaten diogu *tabua*?

http://www1.euskadi.net/harluxet/indice_e.htm

5.- Beste tabu bat ere astindu du Aitor Aranak: Editorearen figura. Hona hemen horri buruzko ausnarketa:

<http://kritikak.armiarma.com/?p=1560>



Pako Aristi

1.- Nor da?

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?i=AriP>

2.- Pako Aristik trilogia bakarreko hiru eleberri argitaratu zituen: [Kcappo, tempo di tremolo](#) , Erein, 1987; [Irene, tempo di adagio](#), Erein, 1988 eta [Krisalida, tempo di tempo](#), Erein, 1990. Irene eta hurrengoko narrazio batzuk leku imaginario batean kokatu zituen. Zein da leku horren izena?

<http://www.galtzagorri.org/euskara/idazleak/pako-aristi-urtuzaga/bibliografia/martinellok-ez-du-kukurik-entzuten?p=2>

3.- Beste idazle batzuek ere sortu dituzte, sortu dituztenez, leku imaginarioak. Hona hemen lekuak eta idazleak. Lotu idazle bakoitza berak sortutako lekuarekin:

Idazleak:

Bernardo Atxaga

Gabriel Garcia Márquez

Juan Benet

William Faulkner

Juan Luis Zabala

Lekuak:



Región

Macondo <http://en.wikipedia.org/wiki/Macondo>

[Yoknapatawpha County](#)

Obaba

Iverst

4.- Aipatu ditugun Pako Aristiren hiru eleberrietan 'tempo' hitza ageri da tituluan. Zeri lotua da *tempo* hitza?

5.- Beraz, Pako Aristi musikari lotua dela uler daiteke. Zein kantari eta musikarekin jardun izan du musika eta literaturaren arloko ikuskarietan?

<http://www.mikelmärkez.com/>

6.- Poesiaren alorra ere jorratzen du tarteka Pako Aristik. 1993An, adibidez, *Castletwon* bilduma argitaratu zuen. Hona liburuko olerkietako bat:

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=AriP10>

7.- Castletown hori ere ez ote da idazleak asmatua. Begiratu GoogleEarth delakoan.

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Castletown>



Xabi Borda

1.- Zer dakizu Xabi Bordari buruz?

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=673>

2.- Xabi Bordaren liburuetako batek *Gulliverren lokarriak* du titulua. Nor da Gulliver ezagunena literaturaren historian? Bilatu ezazu Azpeitiko Idazleen Mundua atalean.

3.- Xabi Bordak Jotakie, Urolan pop liburuan taldearen historia kontatu zuen. Zer dakizu Jotakie taldeaz?

http://www.badok.info/artista.php?id_artista=47

Hona hemen Bordaren liburuaren atarikoak:

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=BorX03>

4.- Hona hemen Jotakieren kantuetako bat:

http://www.badok.info/diskoa.php?id_disko=455&id_artista=47

5.- Beste idazle bati buruz hitz egitean ere aipatua da Punk musika. Zein idazlez ari gara?

Iban Izagirre

6.- *Jotakie* izena nola litzateke Euskara Batuan idatzita?

7.- Urola Bailarak bere azpieuskalkia du. Ikusentzun bideoa eta aipatu zuen



azpieuskalkien berezitasunak, barbarako, bustidura.

<http://www.ahotsak.com/azpeitia/>

Imanol Elias

1.- Nor zen Imanol Elias?

Imanol Eliasen biografia on-line:

http://uztarria.com/azpeitia/ziberteka/liburuak/03_Elias

2.- Imanol Eliasi buruz, Azpeitiko idazleren baten iritzia?

<http://uztarria.com/komunitatea/alaitzolaizola>

3.- Goiko estekan sartuz jakin dugu Imanol Eliasen bizitzaz zerbait. Haren biografia hobetzerik bai?

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=176>

<http://uztarria.com/aktualitatea/1359227816>

4.- Imanol Elias antzerkigintzara emana bizi izan zela esan daiteke, haren antzezlanen ugaritasunari begiratzea baino ez dago horretaz jabetzeko. Zein dira, ordea, haren antzezlanen ezaugarri nagusiak?

<http://www.sanagustinkulturgunea.com/fitxategiak/282.pdf>

5.- Zer dira Azpeitiko Antzerki Topaketak?

<http://www.argia.com/argia-astekaria/1777/euskal-antzerkiaren-gune-aitzindaria/inprimatu>

6.- Noiz sortuak?

1983an

7.- Nork egin zion hitzaurrea Imanol Elisaren biografiari?

Joxemari Iriondok



Miel Anjel Elustondo

1.- Nor da Miel Anjel Elustondo?

<http://uztarria.com/aktualitatea/1077819713>

2.- Zein liburu argitaratu ditu?

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?i=EluMA>

3.- Zein generotakoak dira?

Antzerkia

Bertsolaritza

Kazetaritza

Narraziogintza

Poesia

4.- *Basque Western Festival* hori zein generotakoa den ez dago hain garbi, ordea:

<http://kritikak.armiarma.com/?p=4103>

5.- Idazlea eta kazetaria da Elustondo. Kazetariak arkartza, papera, grabagailua eta *zer beste* eraman ohi du *aldean*?

Kapela

Argazkilaria

Argazki kamera

Betaurrekoak



6.- AEBetako pertsonaia ezaguna da Zaldi Ero?

http://eu.wikipedia.org/wiki/Zaldi_Ero

7.- Ikusirik Elustondoren biografia eta lanak, asma dezakezu zer dela eta hartu duen Zaldi Ero goitizena?

8.- Zaldi Ero kazetari osoa da, beraz:

<http://zaldiero.armiarma.com/>

9.- Zaldi Ero horren atarian Man Ray delako baten olerkia dakar:

A BEAUTIFUL PICTURE

What is a beautiful picture?

What is a beautiful woman?

I don't know.

What is an Abstract painting?

What is a Figurative painting?

I don't know.

I don't do nothing else but
abstractions.

If today I take a position
tomorrow I have to contract myself.

The desire of freedom and pleasure
erases all ideas. If there is a
contradiction, it doesn't matter.

A line, a triangle, a face,

ARGAZKI EDERRA

Zer da argazki eder bat?

Zer da emakume eder bat?

Ez dakit.

Zer da pintura abstrakto bat?

Zer da pintura figuratibo bat?

Ez dakit.

Nik ez dut egiten ez-abstrakzioa besterik.

Gaur jarrera bat hartuz gero,

bihar kontrakoa egin behar izaten dut.

Askatasunaren eta atseginaren bila
ibiltzeak

ideia denak itzaltzen ditu. Ez dio ardura
kontraesanik badago ere.

Lerro bat, triangelu bat, aurpegi bat,



an egg, they all are good point
of living for an adventure.

I have always envid those who find a
mystery in everything.

arrautza bat, denek ere balio dute
abentura bateko abiapuntu izateko.

Beti izan diet inbidia lan batean
misterioa ikusten dutenei.

Man Ray

Man Ray

Horren arabera, argazkigintza zera da:

Grina

Abentura

Misterioa

Argazkiak ateratzea

Zer dakizu Man Ray-ri buruz?

http://eu.wikipedia.org/wiki/Man_Ray

10.- Man Rayk zein harreman izan zuen Euskal Herriarekin?

<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=best04>



Anastasio Esnaola

1.- Nor zen Anastasio Esnaola?

http://uztarria.com/herri_aldizkaria/2006/78/07/index_html

2.- Esteka horreketan bertan dagoen olerkia irakurririk, zein hitzen bidez defini dezakegu olerkiak planteatzen diguna?

Paradoxa

Kontraesana

Zirikada

Purrustada

3.- Zeri deritzogu *paradoxa*?

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=Ith_detail&Itemid=474&search=paradoxa&lang=eu

4.- Zeri deritzogu *kontraesan*?

<http://www.ehu.es/eeh/cgi/bila?z=kontraesan>

5.- Zeri deritzogu *zirikada*?

<http://www1.euskadi.net/harluxet/>

6.- Zeri deritzogu *purrustada*?

<http://www.ehu.es/eeh/cgi/bila?z=purrustada>



6.- Olerki horretan Anastasio Esnaolak euskara biziaren alde eta garbizalekeriaren aurka egiten duela esan daiteke. Zeri deritzogu *garbizalekeria*?

<http://www.ehu.es/eeh/cgi/bila?z=601&l=g>

7.- Anastasio Esnaolaren olerkiak gogora dakarkigu Iñaki Seguiolaren *Gaur ez du hiltzeko eguraldirik egingo* liburuko beste hau: *Diálogo vasco-castellano* (151. 04). Bilatu eta olerkiari alderatu.

8.- Iñaki Seguiolak dakarren *Diálogo* horren ildotik, Morau kantariak hauxe kantatzen du: "Euskaldunok, txakur eta haurri euskaraz"

<http://www.arraintzakohimnoak.org/diskoak.php>



Joxemari Iriondo

1.- Nor da Joxemari Iriondo?

http://eu.wikipedia.org/wiki/Joxemari_Iriondo

2.- Zeri buruz idatzi du?

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?i=IriJ>

Bertsolaritzaz eta trikitixaz

3.- Bertsolaria izan ez bada ere bertsolaritzan garrantzizkoa den zeregin batean jardun izan du. Zertan?

Gai-jartzaile

4.- Zer da gai-jartzailea, zertan da horren zeregina?

<https://sites.google.com/site/euskalbertsolaritza/gai-jartzailea>

5.- Joxemari Iriondok gai-jartzaile gisa izan duen eskarmentuaren testigantza utzi du. Horren arabera, noiz hasi zen bertsolariari gaia jartzearen ohitura?

http://www.euskaltzaindia.net/dok/plazaberri/2009/maiatza/iriondo_uztapide.pdf

6.- Itsasoan urak handi! Horrelaxe dio Iriondoren liburuan Joxe Lizasok:

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=IriJ01>

Horrek Xabier Leteren beste hau ekarri digu gogora:



<http://eu.musikazblai.com/xabier-lete/itsasoan-urak-handi-dire/>

Testu bietako zeinek dauka poesiatik gehiago, zure ustez? Arrazoitu.

Iban Izagirre

Jaio: 1985 / Azpeitia - Gipuzkoa

ISTORIO TXIKI BAT

Neguko arratsalde euritsu batean
ume txoro batzuk aterpe bila
abandonatutako etxe batean sartu ziren.

Orduantxe piztua zen hauen arimetan
gauza txar guztiak probatzeko sua.

Izatez ez ziren gaiztoak
gaizkile itxurako
mini alproja haiek,
eguna espaloiairen bide zuzena
jarraitu ezinda igarotzen bazuten ere.

Eskorbutoren zintak entzuten,
arratsaldeak bete
amona zaharren aztoramendurako
paretak margotuz.

Altzari artean babesten ziren,
sofa multzoen gainean



kanuto susterrak errematatzen,
manta zorritsuetan etzanda,
euren amek
begien aurrean ikusi nahiko ez luketen
etxea defendatuz.

Norbere etxeko epelkeriak saihesteko
mundu propio bat eratuz joan ziren
umetasunaren fantasien indarrez
geldiezinak ziren ametsari gogor helduz.
Kontu eske etortzen zen
autoritate oro zirikatzen
batzutan halabeharrez,
normalean
ez egitekoren bat
egin ondoren.

Kandela eta bokila artean
eraiki zuten arratoi zuloa
eta denborak galoirik eman ez bazien ere
bidea egin zuten
etxe zaharretako
pasillo,
armairu eta ganbaretan barna.

Gau epeletan
teilatuan solasean,
aipatuz,



zeinekin joango ziren bazter ilunera,
gauetan logelan bakarrik zeudenean
irudikatutako eszenatokira.

Nahi gabe
denborak eraldatuko zituen
laguntasun haiek
zerua zulatzen duten izarren azpian
agertu ziren gau eroetan sakabanatu ziren
bakoitzak zakar artean aurkitutako
bere bidezidorra hartuz.

Eta agian norbait gogoratuko da,
azken finean,
ongi pentsatuta,
kalean zeuden atso zaharrei
eta aspermenak jotako erretiratuei
laguntzen zietela,
arratsalde lehor haiek
pixka bat bustitzen.

Besterik gabe,
ez ahaztu,
kate pusketa bat ez bazen
ihes egin zuen harri koskorra,
beti suertatzen zen zerbait
ibai zikin, etxe huts haren ertzean.

Lanketarako:



1.- Olerki honetan punk estiloko EHko musika talde ezagunetako bat ageri da aipaturik.

1.1.- Zein? Eskorbuto.

1.-2.- Zein zen, edo da, Punk mugimenduaren definizioa, hitz bitan? (Euskaraz zein ingelesez):

“Etorkizunik ez / No Future.”

<http://andima.armiarma.com/susa/susa17.htm>

1.-3.- Olerkian, bada punk iritzi dakiokkeenik ezer?

Adibideak: etsipena, bazterketa.

2.- Irakurri arreta bereziz hurrengo pasartea:

“euren amek / begien aurrean ikusi nahiko ez luketen /etxea defendatuz.”

2.1.- Poetak “etxea” horrela aipatu izanak XX. Mendeko zein poeta handi dakarkizu gogora? Gabriel Aresti.

Hona hemen Nire aitaren etxea olerkia musikaturik:

<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=gabe05>

Eta YouTube atarian:

https://www.youtube.com/watch?v=VWm_9L24F5I

3.- Azpeitin jaioa da Iban Izagirre.

3.1.- Olerkian, bada Azpeitiren deskribapenik? Aipatu pasarteak.

3.2.- Aldatu egin al da Azpeitia olerkia argiratu zen 2008ko hartatik hona? Zertan?

Olerkiak Azpeitiko beste olerkari batena dakar gogora. Bila ezazu hurrengo estekan klik eginez:

<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuok.pl?lib=poes16>

4.- Hizkuntzaren aldetik konplexurik gabe jokatzen duela uste al duzu?

4.1.- Bai / Ez.



4.2.- Adibiderik?

4.3.- Zerbait aldarrikatu nahi duela iruditzen zaizu? Zer?



Imanol Lazkano

1.- Nor da Imanol Lazkano?

<http://bdb.bertsozale.com/web/haitzondo/view/-Imanol-Lazkano>

2.- Imanol Lazkanok *Errezilgo ateraldiak* liburuan ahozko euskara eta euskara batua, edo euskara estandarra, biak erabiltzen ditu. Noiz bata eta noiz bestea.

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=LazI02>

Euskara batua, narrazioan, hirugarren pertsona erabiliz.

Ahozko euskara, petsonaien ahotan.

3.- Beraz, Imanol Lazkanok liburu horretan erregistro bi erabiltzen dituela esaten badugu, zein da *erregistro* hitzaren esanahia?

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=erregistro&lang=eu

4.- Bertsolariak ere, non eta noren aurrean kantatzen duen, horrelako edo halako erregistroak erabiltzen ditu. Zein da Imanol Lazkanorena hurrengo testuak dakarren azken bertsoa?:

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=LazI01>



Fernando Morillo

1.- Nor da Fernando Morillo?

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=447>

2.- Fernando Morilloren lehenengo argitalpena Gudaoste ametsak narrazioa da. Hona horren lagina:

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=MorF07>

Testu horretan jada Fernando Morilloren obra guztia zipriztinduko duten gaiak ageri dira. Zeintzuk?

Sexu grina:

“Marta ere gogoratzen dut, nola ez. Marta. Nork ahaz zaitzake? Benetan neskatila polita eta bizia zen, apur bat buruarina, eta *xeratsua* nolana ere, guztiekin. Auzotar *guztien* neska, nolabait esatearren.”

Guda:

“Beste irudi batek hartu nau, oroimen festa honetan. Guda amaitua bazegoen ere, fusilamenduak atergabe jazotzen ziren oraindik gau batean eta hurrengoan ere, festa makabro baten soinu burrunbatsuaren gomutagarri bezala.”

Makabrotasuna:

“Guk, jolaserako aukeratzat hartzen genuen. Zer egin genezakeen bestela? Apustuak egiten genituen, ea nor oldartzen zen exekuzioetara hurreratzen, ea nor hurbilago edota gehiagotan izan, nork hildakoak ukitu. Egun beltzetan, jolas



beltzak.”

3.- Hurrengo liburuetako zeintzuetan ageri da nabarmen sexua?

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=MorF01>

Azalari begiratzea baino ez dago.

Besterik?

4.- Begiratu hurrengo estekan:

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=MorF14>

Horko lekuak, giroa eta hizkerak, benetakoak dira?

5.- Morilloren beste gaietako bat zientzia bera da; baita zientziaren erabilerarekiko kezka dira. Zein liburutan ageri da kezka hori?

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=MorF02>

6.- Nor zen Robert Oppenheimer?

http://eu.wikipedia.org/wiki/Robert_Oppenheimer

7.- Gerra atomikoaren osteko euskal gizartean giroturik dago Fernando Morilloren nobeletako bat behintzat. Zein? Begiratu hemen:

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=MorF05>

8.- Azpeitiko idazleetako batek autoediziora jo zuen: Zein da?

Mikel Alderdi.

9.- Fernando Morillok harago egin, bere argitaletxea sortuz: *Gaumin*. Arrazoiak?

<http://uztarria.com/aktualitatea/1322151902>



Alaitz Olaizola

1.- Nor da Alaitz Olaizola?

http://eu.wikipedia.org/wiki/Alaitz_Olaizola

2.- Zein dira Alaitzek landu dituen generoak? (Bi aipatu)

3.- Alaitz Olaizolak antzerki sariren bat irabazi du? Zein? (Aipatu bat bederen.)

<http://kritikak.armiarma.com/?p=4166>

4.- Nor zen Toribio Alzaga?

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=317>

5.- Alaitz Olaizolak iritzi artikuluak idazten ditu, besteak beste Azpeitiko aldizkari batean. Zein da aldizkari hori?

<http://uztarria.com/komunitatea/alaitzolaizola>

6.- Ikusi dugun bezala Alaitz *zutabegilea* dela esan daiteke. Azpeitiko beste zutabegileren bat?

Pako Aristi



Jose Luis Otamendi

1.- Nor da Jose Luis Otamendi?

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=114>

2.- Jose Luis Otamendik eta Azkoitiko idazle batek lau eskutara idatzi dute *Loiolarik ez balitz* liburua. Zein da beste idazlea?

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=OtaJL10>

3.- Zergatik Loiola? Zeren irudia edo sinboloa da?

<http://paperekoa.berria.info/plaza/2005-06-04/042/925/.htm>

4.- Irakurri hurrengo estekan Koldo Izagirrek Jose Luis Otamendiren olerkigintzaz dioena:

<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=kaie17>

Hori irakurri ondoren, esan, labur, zein diren Otamendiren olerkigintzaren ezaugarri nagusiak.

5.- Jose Luis Otamendiren olerkiak kantatuak izan dira. Zein taldek hartu ditu bereziki beratzako olerkiok?

Bide ertzean

6.- Zer dakizu *Bide ertzean* taldeaz?

http://www.badok.info/artista.php?id_artista=116&markatu=otamendi



7.- Zergatik Otamendiren olerkiak *Bide ertzean* taldeak?

8.- Hona hemen Otamendi Bide ertzean taldeak kantaturik:

http://www.badok.info/diskoa.php?id_disko=157&id_artista=116

Bilatu ezazu olerkia bera:

<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuok.pl?lib=poes0845>

9.- Jose Luis Otamendik bide oparoa egin du olerkigintzan. Narrazio liburu bakarra egin du, ordea. Zein?

10.- Liburu horretan eragina izan duen atzerriko idazle baten izena daukazu Azpeitiko Idazleen Mundua atalean. Zein da?

<http://www.kapsula.com/haria/99/TES1022T16.html>

Benantxio Otaegi

1.- Benantxio Otaegik liburu bakarra argitaratu du. Zein?

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?i=OtaB>

2.- Liburua saiakera da, antropologiaren arlokoa hain zuzen. Zer da antropologia?

<http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=antropologia>

3.- Zein ote zen, edo ote ziren, Goi-paleolitos hartako hizkuntza edota hizkuntzak?

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=OtaB01>

4.- Euskaraz egiten ote zuten, bada?

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Aitzineuskara>

Iñaki Segurola

1.- Nor da Iñaki Segurola?

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=701>

2.- *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*, horra Iñaki Segurolaren lehenengo liburua. Begira Juanjo Olasagarrek liburuaz idatzi zuena:

<http://kritikak.armiarma.com/?p=1516>

Zer dio liburuaren eta Segurolaren alde, zer kontra?

3.- Nor da Peru Abarka?

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MogelJAAbarka.htm>

4.- Nor da Nietzsche?

http://eu.wikipedia.org/wiki/Friedrich_Nietzsche

5.- Nietzscheren lanik ezagunena, agian, *Hala mintzo zen Zaratustra* da. Hona hemen liburuaren tonua musikaren bidez emana :

<https://www.youtube.com/watch?v=ML1OZCHixR0>

Filma osorik:

<https://www.youtube.com/watch?v=FcREELi3e1E>



6.- Olasagarrek Euskal Herrian filologo gehiegi dagoela dio. Zer esan nahi du *filologo* hitzak?

<http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=filologo>

<http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=filologia>

7.- Bigarren liburua *Nire gorringotik* da. Horko pasarte bat hurrengo estekan

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=Segl02>

Zeri, zeini edo nori deritzogu heterodoxo?

<http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=heterodoxo>

8.- Horren antonimoa?

Ortodoxo.

<http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=ortodoxo>

9.- Iñaki Seguirolaren hirugarren liburua *Arrazoia ez dago edukitzerik* dugu.

<http://www.amarauna.org/azpeitia/?l=Segl03>

Zertaz dihardu Sarasolak?

Osasunaz eta isiltasunaz.



Idazleak Idazleen Irakurle Azpeitiko Idazleen Mundua

Idazleak, lehenik eta behin, eta idazle egin aurretik, irakurleak izan dira. Guztiek badute idazle kuttunen bat edo beste. Horiek nor diren idazleek berek aitortu izaten dute. Batzuetan zuzen-zuzenean eta beste batzuetan izenak beren obretara ekarriz. Kritikoek ere laguntzen digute idazleen idazleak zein diren ezagutzen. Hurrengo zerrenda osatzeko hiruretara jo dugu. Azpeitiko euskal idazle bakoitzeko kanpoko edota beste hizkuntza bateko idazle bakarra hautatu dugu. Ez bakar bana dutelako, bestela zerrenda luzeagoa litzatekeelako baizik. Parentesi artean idazle bakoitzaren sorlekuak eta jaiotza eta -idazleak hilik denean- heriotza urteak doaz.

Oharra. Azpeitiko zenbait idazleren kasuan ezinezko izan zaigu erreferentziazko idazlerik aurkitzea. Agian zuk zeuk topa dezakezu bat edo beste.

1.- Agirre, Joxean: Max Frisch (Zurich, Suitza; 1911 – 1991).

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=201>

2.- Alberdi, Mikel: Bertolt Brech (Augsburgo, Alemania; 1898 – 1956).

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=101>

3.- Aldai, Xabier: Harry Crews (Bacon County, Georgia, AEB; 1935 – 2012).

<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=erre10>



4.- Ansola, Gurutz:

5.- Arana, Aitor: Oscar Wilde (Dublin, Irlanda; 1854 - Paris, 1900).

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=83>

6.- Aristi, Pako: Truman Capote ((New Orleans, AEB; 1924 – 1984).

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=168>

7.- Borda, Xabi: Jonathan Swift (Dublin, Irlanda; 1667 – 1745).

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=298>

8- Elias, Imanol: Pio Baroja (Donostia, 1872 – Madril, 1956).

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=135>

9.- Elustondo, Miel Anjel: Robert Laxalt (Nevada, AEB; 1923 – 2001).

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=78>

10.- Esnaola Anastasio:

11.- Iriondo, Joxemari:

12.- Izagirre, Iban:

13.- Lazkano, Imanol:

14.- Morillo, Fernando: Mary Shelley (Londres, Erresuma Batua; 1799 – 1851)

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=823>



15.- Olaizola, Alaitz:

16.- Otaegi, Benantxio:

17.- Otamendi, Jose Luis: Mia Couto (Beira, Mozambique; 1955)

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=1035>

18.- Segurola, Iñaki: Ludwig Wittgenstein (Viena, Austria; 1889 - 1951)

http://eu.wikipedia.org/wiki/Ludwig_Wittgenstein

<http://paperekoa.berria.info/plaza/2005-02-11/037/890/.htm>

http://en.wikipedia.org/wiki/Ludwig_Wittgenstein

Idazleen munduko mapa

Azpeitiko idazleek aipatu dituzten idazleen sorlekuekin zein beren lanetan aipatu dituzten herrialdeekin, lekuekin, haien guztien arteko munduko mapa osa dezakegu. Hona hemen munduko mapa, sorlekuak eta herrialdeak zein bere lekuan jar ditzazun.

Idazleen Azpeitiaren mapa

Badakizu zein idazle zein auzotan eta, are, zein kaletan edota etxetan jaioa den? Kokatu itzazu idazleak hurrengo mapan:

Azpeitiko mapa.